

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Azoketan, gure baliabide printzipala **maketak** izango dira. Lehehengo azoka BECen izango da, 2027ko otsailaren 23tik 25era izango da, egun osoetan zehar. Azoka hau nola joaten den baloratu eta gero, beste batzuk planteatuko ditugu. Gure helburua honekin, gure proiektuan interesa duten **inbertsoreak lortzea** da. Gainera, bezeroak lortzeko aukera izatekotan, informazioa emateko prest egongo gara. Gure ideia, **maketa bai txikiak zein tamaina errealean** (material arinagoekin) jartzea da, bezeroek benetako dimentsioetan ikusteko eta barruan sartzeko aukera izateko. Hona hemen gure maketen modelo batzuk:



Gure enpresak, **hitzaldi sorta bat** aurrera eramango du **Euskal Herriko unibertsitate publikoetan**. Helburua da gure proiektua ezagutaraztea eta adreiluen funtzionamendua azaltzea.

Hitzaldietan, **adibide errealak** aurkeztuko ditugu, hala nola:

- Sute baten ondoren etxea galdu duten familiak.
- Uholde edo lur-jausien eraginpean dauden komunitateak.
- Etxegabetze azkar baten ondoren babesleku bat behar duten pertsonak.
- Azpiegitura gutxi duten landaguneko eremuak, non behin-behineko etxebizitzak behar diren.

Gainera, beste adibide errealak hitzaldietan hobeto adierazteko, gurekin lehenago **kolaboratu duten pertsonak** ere etorriko dira. Haiek euren egoera zaila azalduko dute etxerik gabe geratu ziren momentua, zailtasunak eta bizi izan zuten ziurgabetasuna eta nola gure adreiluei esker berehala babesleku seguru bat lortu zuten. Haien **testigantzak** argi erakutsiko dute zein garrantzitsua izan den gure laguntza eta nola lortu duten aurrera egitea eta egoera berreraikitzea.

Hitzaldi hauekin, **ikasle eta irakasleak inspiratzea** eta etorkizuneko lankidetzak akademikoak sortzea bilatzen dugu, berrikuntzak gizartean izan dezakeen eragina erakutsiz

GKE ezberdinen asanblea orokorrean gure proiektua aurkeztuko dugu. Helburua da Aterpolis ezagutaraztea eta azalpen orokorra ematea. Gainera, nahi dugu ONG batzuk

interesa izatea gure produktuan. Horretarako, gure gaitasunak erabiliko ditugu kontaktuak lortzeko, eta horrela harremanak sortu eta elkarlana bilatuko dugu etorkizunerako.

Jakinda kontaktuan jarri nahi dugun GKEak honako hauek direla: [“Ekintzaz Lagundu Fundazioa”](#).